Bestelako Xedapenak

KULTURA SAILA

204

EBAZPENA, 2010eko abenduaren 14koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, Euskal Autonomia Erkidegoko ikus-entzunezko sektorea nazioarteko ikus-entzunezko merkatuetan sustatu eta hedatzeko laguntzen deialdia (Niniak) egiten duen Kulturako sailburuaren 2010eko irailaren 15eko Aginduan finkatzen den gehienezko zenbateko orokorra aldatzen duena.

AURREKARIAK

1.– Kulturako sailburuaren 2010eko irailaren 15eko Aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko ikus-entzunezko sektorea nazioarteko ikus-entzunezko merkatuetan sustatu eta hedatzeko laguntzen deialdia (Niniak) egiten duenak, bere 12. artikuluan dirulaguntza horien zenbateko orokorra hogeita hiru mila laurehun eta laurogei (23.480) eurotan finkatu zuen.

2.– Aipaturiko aginduaren xedapen gehigarrian honako aukera hau aurreikusten zen:

«Eskatutako dirulaguntzaren zenbateko osoa kontuan hartuta, 12.1 artikuluan ezarritako zenbateko globala aldatu ahal izango da, baldin eta beste programa batzuk gauzatu ondoren Kultura Sustatzeko Zuzendaritzaren aurrekontuetako izakinak agortu ez badira. Aldaketa hori eskabideei buruzko erabakia hartu aurretik egin beharko da eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen ebazpen baten bitartez».

3.– 2010eko azaroaren 8an deitutako dirulaguntzetarako eskabide-epea itxi zen eta jasotako eskabideen erregistro eta kuantifikazioaren prozedura hasi zen. Epe horretan zehar ikusi da jasotako eskabide eta dirulaguntza-kopuruagatik komenigarria izango litzatekeela diru-kopurua gehitzea.

4.– Une honetan, dirulaguntzen deia egiten duen aginduaren xedapen gehigarrian aurreikusten den moduan, aurrekontu-disponibilitatea badago.

Ondorioz, hauxe,

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE CULTURA

204

RESOLUCIÓN de 14 de diciembre de 2010, del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, por la que se modifica el importe global máximo destinado en la Orden de 15 de septiembre de 2010, de la Consejera de Cultura, por la que se regulan las medidas de apoyo a la participación de las empresas que integran el sector audiovisual en la Comunidad Autónoma del País Vasco en eventos audiovisuales de carácter internacional (Niniak).

ANTECEDENTES

1.– La Orden de 15 de septiembre de 2010, de la Consejera de Cultura, por la que se regulan las medidas de apoyo a la participación de las empresas que integran el sector audiovisual en la Comunidad Autónoma del País Vasco en eventos audiovisuales de carácter internacional (Niniak), en su artículo 12.1 fijaba el importe global de dichas ayudas en la cantidad de veintitrés mil cuatrocientos ochenta (23.480) euros.

2.– En la disposición Adicional de la citada Orden se preveía la siguiente posibilidad:

«El importe global consignado en el artículo 12.1 podrá ser modificado, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución del presupuesto de la Dirección de Promoción de la Cultura, y con carácter previo a la resolución de las mismas. De dicha circunstancia se dará publicidad mediante Resolución del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes».

3.– Con fecha 8 de noviembre de 2010 quedó cerrado el plazo de presentación de solicitudes para acceder a las ayudas convocadas y comenzó el proceso de registro y cuantificación de las solicitudes presentadas. A lo largo de este periodo se ha constatado que el número de proyectos y las cantidades solicitadas harían aconsejable un incremento de la cantidad destinada.

4.– Dado que existe en este momento disponibilidad presupuestaria en los términos previstos en la Disposición Adicional de la Orden de convocatoria de las ayudas.

Por todo ello,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko ikus-entzunezko sektorea nazioarteko ikus-entzunezko merkatuetan sustatu eta hedatzeko laguntzen deialdia (Niniak) egiten duen 2010eko irailaren 15eko Aginduan finkatzen den gehienezko zenbatekoa 26.620 euro gehitzea.

Beraz, aipaturiko aginduaren 12.1 artikuluan aurreikusitako diru-kopurua berrogeita hamar mila ehun (50.100) eurotan finkatzen da.

Bigarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitaratzea.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Kulturako sailburuari, EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasi eta hilabeteko epean.

Bigarrena.– Ebazpen honek hartzen denetik aurrera izango du eragina.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko abenduaren 14a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
ANTONIO RIVERA BLANCO.

RESUELVO:

Primero.– Incrementar en 26.620 euros el importe global máximo destinado en la Orden de 15 de septiembre de 2010, de la Consejera de Cultura, por la que se regulan las medidas de apoyo a la participación de las empresas que integran el sector audiovisual en la Comunidad Autónoma del País Vasco en eventos audiovisuales de carácter internacional (Niniak).

Por tanto, la cantidad global máxima prevista en el artículo 12.1 de la Orden de convocatoria queda fijada en 50.100 euros.

Segundo.– Publicar la presente Resolución en el BOPV.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su publicación en el BOPV ante la Consejera de Cultura.

Segunda.– La presente Resolución surtirá efectos desde su adopción.

En Vitoria-Gasteiz, a 14 de diciembre de 2010.

El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes,
ANTONIO RIVERA BLANCO.